

Funtzesko baliabideak

Enpresa gisa gure jarduera garatu ahal izateko, hainbat baliabide mota behar ditugu, eta horiekin jarduera eduki ahal izango dugu, bezeroengana iritsi, bezeroekin harremanak izan eta diru-sarrerak sortu. Garapen hori eraginkorra izan dadin, hauek dira gure funtsezko baliabideak:

01. Baliabide fisikoak:

Enpresaren jarduera Distrito Sansomendi - Ali Vitoria-Gasteizen egingo da. Aligobeo inguruan salgai eta alokairuan dagoen industria nabea da. Bulegoak ditu beheko, lehen eta bigarren solairuetan. 1.280 m² eraikita. Beheko solairuan enpresaren aktibitate ia guztia aurkituko da, hondakinen bilketa, desinfekzioa, distribuzioa eta haien eraldaketa produktu berriak lortzeko. Bigarren solairuan, berriz, builogoak egongo dira, non bestelako aktibitateak jasoko direnak.

Erabiliko diren makina eta instrumentalei dagokienez, hondakinak garraiatzeko erabiltzen diren kamioiak eta material eta produktuen banaketa nabarmendu daitezke. Edukiera handiko edukiontziak daude, mugikortasuna dutenak, birringailu industrialak, eskaierarako labe birakaria, desinfekziorako murgilgailuak. . .

02. Baliabide intelektualak:

Baliabide horren barruan sartzen dira enpresaren funtzionamendu ezin hobean inplikaturik dauden pertsonak, Ainararen antolaketa eta plangintza, Albako enpresa baten zuzendaritzaren ezagutza eta merkataritza trebetasunak, eta Elenaren esperientzia eta gaitasunak.

03. Giza baliabideak:

Enpresako langileekin zerikusia duen guztia kudeatzeko, Albak eta talde espezializatu batek errekrutatu, hautatu, kontratatu, ongietorria eman, trebakuntza, promozioa, nominak eta kaleratzeak egingo dituzte.

04. Finantza-baliabideak:

Hasteko, inbertsio batzuk egingo dira funtsezko jarduerari ekiteko: Inbertsio propioa edo banku-maileguak ING DIRECT banka Online-ean, inbertitzaile aingeruak edo arrisku-kapitala, gobernuaren dirulaguntzak eta laguntza.